

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, DURANGOKO UDALAREN 2009-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Durangoko Udalaren 2009ko ekitaldiari dagokion fiskalizazio txostena mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute.

Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenak -Udalaren, bere Erakunde Autonomoen eta Sozietate Publikoaren kontuak barne hartzen dituenak- legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude jasoak.

Bada, langileriarri dagokionez, HKEEk jakinarazi du Udalak 2009an aldi baterako pertsona bat kontratatu zuela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak gorde gabe eta aldi baterako beste bost kontratazio gauzatu zituela baliatutako prozedurek printzipio horiek gorde direla bermatzen dutela egiaztatzerik izan gabe.

Kontratazioaren atalean, HKEEk adierazi du Udalak zenbaitetan urratu egin dituela administrazioko kontratazioa arautzen duten arauak. Hona hemen adierazgarrienak: alkatetzaren dekretu bitartez hainbat obra eta aldaketa bat esleitu dira 2,6 eta 1,3 milioi euroko zenbatekoarekin, Osokoak onetsi beharrean; 1,9 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako zerbitzu kontratu baten lehia justifikaziorik gabe mugatu du, kontratatutako zerbitzuaren prestazio nagusiarekin bat ez zetorren sailkapena eskatzearekin pleguan; hiru obra proiektutan obrak egikaritu ondoren onetsi dira aldaketak eta bi obra kontratatutako egin diren aldaketak kostuaren gainean % 32 eta % 37koak izan dira; horrek kontratuaren xedea eta bolumen ekonomikoa desitxuratzen ditu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du horien aurkezpen eta edukiarri dagokionez; ordea, akatsa azaleratu du, besteak beste, kontabilitateari egindako hainbat doiketen ondorioz, Diruzaintza Geldikina 4,6 mila euroan murriztu dutenak.

Erakunde autonomo eta sozietate publikoei dagokienez, legea betetzeari eta urteko kontuei buruzko iritzia aldekoa da, nahiz bi ez-betetze azpimarratu diren, txostenean jaso direnak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu eta kontabilitate, sarrera fiskal, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Azkenik, finantza egoerari dagokionez jakinarazi da 2007-2009 aldian sortutako aurrezki garbia nabarmen murriztu dela itunpeko zergen diru-bilketak behera egin izanaren ondorioz, zerbitzuen kostuek goranzko joerari eutsi dioten bitartean. Horregatik guztiagatik, 2009ko abenduaren 31n finantza egoera osasuntsua izan arren, Udalak zerbitzuek eragiten dituzten kostuen gainean esku hartu behar luke; epe laburrera, berriz, inbertsioak finantzatzeko geldikina eta zorpetze-bidea ditu, baita aktiboak salduta diru-laguntzak edo sarrerak eskuratzeko aukera ere.